## ORIOKO UDALA

*Behin betiko onarpena ematea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal Ordenantzari.*

Orioko udalbatzarrak, 2012ko maiatzaren 31n egindako ohiko bilkuran, lehen onarpena eman zion animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzari.

Ordenantza hori hogeita hamar laneguneko epean jarri zen jendaurrean, 2012ko ekainaren 6an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 107 zenbakian argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdunen aldetik inolako erreklamazio zein iradokizunik, Ordenantza onartutzat ematen da.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da aldatutako artikuluaren testua; testua ez da indarrean sartuko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost lanegunetako epea iragan arte.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurretik, udalbatzarraren aurrean Aukerako Berraztertzeko Errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespena eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

ERANSKINA

### ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

### ARRAZOIEN AGERPENA

Animaliak babesteari buruzko Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak gutxieneko esparru juridikoa ezarri zuen, gizakion eta animalien arteko bizikidetza arautzeko, osasungarritasun publikoaren zainketa eta animalienganako errespetua, defentsa eta babesa uztartuz, betiere interes orokorrekin doitutako orekaren barruan.

Aipatutako Lege hori argitaratu eta indarrean sartu zenetik, gehikuntza kuantitatibo nabaria izan da animaliak edukitzearen fenomeno sozialean eta, horrekin batera, baita animalien eskubideei eta gizarte-eremu modernoan bizikidetza egokia arautzeko marko zorrotzagoren baten beharrizanari buruzko kontzientzia sozialean ere.

Beste alde batetik, arlo honetan arauzko erregulaziorako prozesu sendoa egon da. Horren adierazgarririk garrantzitsuena, seguruenik, animalia arriskutsuak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea izan zen. Izaera arriskutsuko zenbait animalia edukitzeak gizartean sortutako kezkari erantzun nahian, Lege horrek araubide zorrotza ezarri zuen era horretako animaliak edukitzeari dagokionez, aldez aurretik baimena eskuratzeko betebeharra eta animaliok edukitzeko baldintza berezien derrigorrezkotasuna eskatuz, besteak beste.

## AYUNTAMIENTO DE ORIO

*Aprobación definitiva de la de la Ordenanza municipal reguladora de la tenencia y proteccion de animales.*

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 31 de mayo de 2012, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Municipal reguladora de de la tenencia y protección de animales.

Habiéndose sometido dicha Ordenanza al trámite de exposición pública por el plazo de treinta días hábiles mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 107 de fecha 6 de junio de 2012 y no habiéndose presentado por parte de los interesados reclamación ni sugerencia alguna, se tiene por aprobada definitivamente la citada Ordenanza.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 771985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, a continuación se procede a publicar como Anexo a este anuncio el texto del artículo modificado de la citada Ordenanza, con la indicación de que no entrará en vigor hasta que se haya publicado el texto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo de quince días hábiles.

Contra el acuerdo municipal que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse Recurso Potestativo de Reposicion ante el Pleno de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

ANEXO

### ORDENANZA REGULADORA DE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE ANIMALES

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley del Parlamento Vasco 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales introdujo un marco jurídico mínimo para ordenar la convivencia de los seres humanos con los animales conjugando la preservación de la salubridad pública con su respeto, defensa y protección, y dentro de un equilibrio ajustado a los intereses generales.

Desde la publicación y entrada en vigor de la mencionada Ley se ha producido un notable incremento cuantitativo en el fenómeno social de la tenencia de animales y un paralelo incremento cualitativo en la conciencia social sobre los derechos de los animales y la exigencia de un marco más exigente para ordenar su adecuada convivencia en un ámbito social moderno.

Por otra parte, ha habido un importante proceso de regulación normativa de la materia, cuya expresión más importante probablemente haya sido la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos que, ante la alarma social creada por la tenencia de determinados animales de tal naturaleza, vino a establecer un exigente régimen para su tenencia incluyendo la obligatoriedad de la obtención de una licencia previa y de unas condiciones especiales de tenencia.

Hasieran, abenduaren 23ko 50/1999 Legea behar bezala aplikatzeko beharrezko legegintza-garapenik ez zenez egon, gure eremu autonomikoan berariazko arau bat onestearen alde egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeko arauak ematen dituen apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua xedatuz, hain zuzen. Beste hainbat gairen artean, «arriskutsuak izan daitezkeen animalien» figura ezarri zuen, zenbait animalia edukitzeak gizartean sortutako aipatutako kezkari erantzuteko asmoz. Hala ere, arau horren indarraldia arras eztabaidatua izan zen, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua argitaratu zenean. Dekretu horren bidez abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen zen, Lege horren aplikazio-eremua zehaztasunez mugatuz, neurri handi batean oinarrizko izaerarekin.

Segurtasun juridiko gabeko egoera sortu berria gainditu eta erregulaziorako marko egonkorra finkatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua argitaratu da. Dekretu horrek, berrikuntza batzuekin, aurreko araudia moldatu eta, beharrezkoa izan den kasuetan, hasieran aipatutako animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen testuinguruan kokatu du.

Horren harira, Ordenantza honek prozesu hori guztia bildu eta gaurkotu egiten du, eta animaliak eduki, babestu eta merkaturatzeko arauak ere jasotzen ditu, udal jardueraren eremura egokituz, tresna erabilgarria eta eraginkorra izan dadin batetik animaliak edukitzearekin eta, bestetik, ondorioz gizarte moderno eta konplexuen markoan gizakiekin elkarbizitzeko fenomenoarekin zerikusia duten alderdi eta jardun-eremuen arteko konplexutasun elkarlotua arautu, kontrolatu eta bertan esku hartzeko.

## I. TITULUA
## XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK

### I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

*1. artikulua. Xedea.*

Ordenantza honen xedea da, batetik Orioko udalerrian leudekeen animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea, erroldatutakoak izan ala ez, bertan erregistratutakoak izan ala ez, animalion jabeen edo edukitzaileen bizilekua edozein izanik eta, bestetik, euren eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatzea ingurumenaren osasunerako eta pertsonen eta ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako balizko arriskuekin.

Horretarako, tratu, higiene eta zaintza, babes eta garraioari dagokionez animaliok jaso behar dituzten gutxieneko arretak zehazten ditu, eta establezimendu espezializatuetako egonaldi, osasun-laguntza, merkaturatze eta salmentari buruzko arauak ere ezartzen ditu.

Era berean, arriskugarriak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko erregimen juridikoa arautzen du, eta baimenaren beharrizana, animaliok edukitzeko baldintza orokorrak eta erregistroen araubidea ere kontuan hartzen ditu.

*2. artikulua. Kanpoan utzitakoak.*

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira eta bakoitza dagokion araubide propioaren arabera araututa egongo dira:

a) Ehiza.

b) Arrantza.

c) Basa-animalien zaintza eta babesa euren natur ingurunean.

d) Zezenketak.

En un primer momento y ante la falta de desarrollo legislativo de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, necesario para su debida aplicación, se optó en nuestro ámbito autonómico por la aprobación de una norma específica como fue el Decreto 66/2000, de 4 de abril, Regulador de la Tenencia de Animales de la Especie Canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco que, entre otros extremos, introdujo la figura de los Animales de Riesgo para atender la mencionada preocupación social ante la tenencia de determinados animales, no obstante la vigencia de dicha norma quedó seriamente cuestionada por la publicación del Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo, por el que se desarrolla la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, que vino a delimitar con precisión el ámbito de aplicación de la mencionada Ley, en gran medida de carácter básico.

Para superar la situación de inseguridad jurídica creada y fijar un marco estable de regulación se ha publicado el Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en el País Vasco que, con determinadas innovaciones, refunde la normativa anterior enmarcándola, cuando es necesario, en el contexto de la inicialmente citada Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales.

Pues bien, la presente Ordenanza recoge y actualiza todo el proceso señalado así como otras normas que inciden en la tenencia, protección y comercialización de los animales, adecuándolas al ámbito de actuación municipal de manera que se disponga de un instrumento útil y eficaz para regular, controlar e intervenir en la complejidad interconexa de aspectos y ámbitos de actuación relacionados con la tenencia de animales y con el consiguiente fenómeno de su convivencia con los seres humanos en el marco de sociedades modernas y complejas.

## TITULO I
## OBJETO, AMBITO DE APLICACIÓN Y DEFINICIONES

### CAPITULO I. OBJETO Y AMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de la presente Ordenanza establecer normas para protección, tenencia, y venta de los animales que se encuentren en el Municipio de Orio con independencia de que se encuentren o no censados, o registrados en él y sea cual fuere el lugar de residencia de los/as dueños/as o poseedores/as, armonizando la convivencia de los mismos y las personas con los posibles riesgos para la sanidad ambiental y la tranquilidad, salud y seguridad de personas y bienes.

Para ello fija las atenciones mínimas que han de recibir los animales en cuanto a trato, higiene y cuidado, protección y transporte, y establece las normas sobre su estancia en establecimientos especializados, atención sanitaria, comercialización y venta.

Asimismo se regula el régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos, contemplando la sujeción a Licencia, condiciones generales de la tenencia y régimen de registros.

*Artículo 2. Exclusiones.*

Quedan excluidos de la presente Ordenanza y se regirán por su normativa propia:

a) La Caza.

b) La Pesca.

c) La conservación y protección de la fauna silvestre en su medio natural.

d) Los espectáculos taurinos

e) Abeltzaintza, gizentzeko animalien hazkuntza gisa ulertuta, kontrola horretarako eskumena duten beste administrazio publiko batzuei badagokie.

f) Animaliak esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako erabiltzea.

## II. KAPITULUA. DEFINIZIOAK

*3. artikulua. Definizioak.*

1. Ordenantza honetan etxe-aberetzat hartuko dira bizirik irauteko gizakiaren laguntasuna ezinbestekoa duten animaliak.

2. Etxekotutako animaliatzat hartuko dira basoan eta aske jaio arren gizakiok ikustera eta gizakiok lagun izatera ohituta daudenak, eta orain bizirik irauteko gizakiaren laguntasuna ezinbestekoa dutenak.

3. Itxian hazitako basa-animaliatzat hartuko dira basoan edo itxian jaio arren gatibualdiko baldintzapean bizi izan direnak, eta ez, gero etxekotuak izan daitezen, ikaskuntzarako baldintzapean.

4. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira basatiak izanik etxe-abere gisa edo konpainiako animalia gisa erabiltzen direnak eta, agresibitatea kontuan hartu gabe, gizakiak edo beste animalia batzuk hiltzeko edo gauzei kalteak eragiteko gaitasundun espezie edo arrazatakoak direnak.

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira, baita ere, erregelamenduz zehaztutako etxe-abereak edo konpainiakoak eta, bereziki, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko I. eta II. eranskinetan zehaztutako txakur-espezieetakoak, eta bertako 10.1.c) artikuluan izaera horretakotzat izendatutakoak.

5. Ustiapen-animaliatzat hartuko dira, giza ingurunera egokituak izan ondoren, gizakiari esker bizirik irauten dutenak, betiere irabaziak lortzeko helburuarekin, bai animaliekin eurekin bai animalioi esker lortutako ekoizpenekin.

6. Edukitzeko baldintza berezipeko txakurtzat hartuko dira beraien ezaugarri etologikoengatik etxean eduki ahal izateko udal agintaritzak baldintza bereziduntzat izenda ditzakeen txakurrak.

## II. TITULUA
## ANIMALIAK EDUKITZEAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

## I. KAPITULUA. IZAERA OROKORREKO ARAUAK

*4. artikulua. Betebeharrak.*

1. Jabeak higiene eta osasun baldintza onetan eduki behar du animalia, aterperako instalazio egokiak, janaria eta edaria, albaitaritza-laguntza eta ariketa fisikorako aukera eman behar dizkio, eta animaliari beraren beharrizan fisiologiko eta etologikoen araberako arreta eskaini behar dio, animaliaren espeziea eta arraza kontuan hartuta.

2. Bereziki, animalien mantenurako gutxieneko baldintza hauek ezarri dira:

a) Edateko ur eta elikagai nahikoa eta orekatua ematea, nutrizio eta osasun maila egokia izan dezan.

b) Espazio, aireztapen, hezetasun, tenperatura, argitasun eta aterpe egokia eta beharrezkoak eskaintzea, animaliak inolako sufrimendurik izan ez dezan eta bizitzeko premiei erantzuteko aukera edukitzeaz gain ongizateaz goza dezan.

c) Bizilekuak garbi, desinfektatuta eta desintsektatuta edukitzea, gorozkiak eta gernua aldian-aldian garbituz.

e) La Ganadería entendida como cría de animales con fines de abastos, cuyo control se ejerza por otras administraciones públicas competentes.

f) La utilización de animales para experimentación y otros fines científicos.

## CAPITULO II. DEFINICIONES

*Artículo 3. Definiciones.*

1. Se considera animal doméstico, a los efectos de la presente Ordenanza, aquél que depende de la mano de una persona para su subsistencia.

2. Se considera animal domesticado aquél que, habiendo nacido silvestre y libre, es acostumbrado a la vista y compañía de la persona, dependiendo definitivamente de ésta para su subsistencia.

3. Son animales salvajes en cautividad aquellos que, habiendo nacido silvestres o en cautividad, son sometidos a condiciones de cautiverio, pero no de aprendizaje, para su domesticación.

4. Son animales potencialmente peligrosos los que perteneciendo a la fauna salvaje, siendo utilizados como animales domésticos o de compañía, con independencia de su agresividad, pertenecen a especies o razas que tengan capacidad de causar muerte o lesiones a las personas o a otros animales y daños a las cosas.

También tendrán la consideración de potencialmente peligrosos los animales domésticos o de compañía que reglamentariamente se determinen y, en particular, los animales de la especie canina determinados en los anexos I y II al Decreto 101/2004, de 1 de junio, así como los declarados con tal carácter conforme a su artículo 10.1.c).

5. Son animales de explotación todos aquellos que, adaptados al entorno humano, sean mantenidos por el ser humano con fines lucrativos, bien de los animales en sí o de las producciones que generan.

6. Son perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia, aquellos ejemplares concretos que por sus circunstancias etológicas, puedan ser sometidos por la autoridad municipal a condiciones especiales para su tenencia

## TITULO II
## REGIMEN JURÍDICO DE LA TENENCIA DE ANIMALES

## CAPITULO I. NORMAS DE CARÁCTER GENERAL

*Artículo 4. Obligaciones.*

1. El poseedor de un animal deberá mantenerlo en buenas condiciones higiénico-sanitarias, procurándole instalaciones adecuadas para su cobijo, proporcionándole alimentación y bebida, prestándoles asistencia veterinaria y dándoles la oportunidad de ejercicio físico y atendiéndole de acuerdo con sus necesidades fisiológicas y etológicas en función de su especie y raza.

2. En particular, se establecen las siguientes condiciones mínimas de mantenimiento de los animales:

a) Proveer de agua potable y alimentación suficiente y equilibrada para mantener unos buenos niveles de nutrición y salud.

b) Disponer de espacio, ventilación, humedad, temperatura, luz y cobijo adecuados y necesarios para no evitar ningún sufrimiento y para satisfacer sus necesidades vitales y su bienestar.

c) Mantener los alojamientos limpios, desinfectados y desinsectados retirando periódicamente los excrementos y los orines.

d) Ibilgailu batek ezin du animaliaren ohiko bizitokia izan.

e) Animaliak ibilgailu pribatuan garraiatzeko ezinbestekoa izango da animalientzat nahikoa espazio izatea, aire libretik babestuta, animaliak gidariaren jardunari inolako trabarik egin gabe, trafiko-segurtasuna arriskuan jarri gabe eta ikuspuntu etologiko edo fisiologikotik animaliarentzat baldintza desegokirik gabe.

f) Aparkatutako ibilgailuren baten barruan animaliaren bat utzi bada, ibilgailuak ezin izango ditu egin 4 ordu baino gehiago aparkatuta eta, udan, ahal bada gerizpetan utzi beharko dira, beti ondo aireztatuta.

3. Animaliaren jabeak edo edukitzaileak uste badu animaliak gaixotasun kutsagarriren bat izan lezakeela, albaitariari eman beharko dio horren berri eta, albaitariak, eskumendun agintaritzari jakinarazi beharko dio, baldin eta zoonosia dela uste edo hala egiaztatu ahal izan badu.

4. Albaitariak diagnostikatzen badu animalia batek gizakiak edota beste animalia batzuk kutsatzeko moduko gaixotasun infektaberaduna izan dezakeela eta, haren iritzian, animalia hiltzea komeni bada, sistema eutanasiko baimenduren baten bidez hil beharko da, animaliaren jabearen kargura.

*5. artikulua. Animalien identifikazioa.*

1. Txakurren jabe edo edukitzaileak behartuta daude animaliok identifikatuta eta ohiko bizileku duten udalerriko udaletxean erroldatuta edukitzera; horretarako, hilabeteko epea izango dute, animalia jaio den edota eskuratu duten egunetik hasita. Betebeharra udalerrian modu iraunkorrean bizi diren edo hiru hilabete baino gehiago daramatzaten animalien jabeek izango dute. Betebehar hau, konpainiako beste animalia batzuentzat ere kontuan izan beharko da.

2. Identifikaziorako, txakurraren lepoaren ezkerraldean mikrotxipa edo osagai elektroniko bat jarriko dio albaitari ofizialen batek, foru edo udal albaitariak, edo animalia txikientzat gaitutako albaitari pribatuak.

Inplantazio hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan ezarritakoari jarraituz egingo da, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektrikoen erabilera eta ezar litekeen beste edozein arautan xedatutakoa erregulatzen den.

Animalia identifikatzerakoan, albaitari ofizial edo gaitu jarduleak Kartilla Ofiziala eta animaliaren identifikaziorako agiri bat beteko ditu, eta 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren arabera sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) erregistratzeko eskabidea egingo du. Agiri hori eskuragarri izango dute interesatuek albaitari ofizialen edo gaituen bulegoetan. Ale bat lanean diharduen albaitariaren eskuetan egongo da, eta beste bi ale animaliaren jabeari emango zaizkio; aleetako bat Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidali beharko du, NANaren fotokopiarekin batera, datuak AIEOan sartu ahal izateko.

3. Ez erroldatzea, edo epez kanpo egitea, arau-haustea izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoari jarraituz.

4. Animaliaren jabeak AIEOri jakinarazi behar dio erregistro horretako datuetan izandako edozein aldaketa, zehatzean esanda honako baten bat aldatu bada:

a) Jabeari edota txakurrari buruzko datuen aldaketa.

b) Jabe aldaketa.

d) No pueden tener como alojamiento habitual los vehículos.

e) El transporte de animales en vehículos particulares se tiene que efectuar en un espacio suficiente, protegido de la intemperie y de las diferencias climáticas fuertes y de forma que no pueda ser perturbada la acción del/de la conductor/a, se comprometa la seguridad del tráfico o les suponga condiciones inadecuadas desde el punto de vista etológico o fisiológico.

f) Los vehículos estacionados que alberguen en su interior algún animal no podrán estar más de 4 horas estacionados y en los meses de verano, tendrán que ubicarse preferentemente en una zona de sombra facilitando en todo momento la ventilación.

3. Cuando un/a propietario/a o tenedor/a considerara que un animal pudiera padecer una enfermedad contagiosa, lo pondrá en conocimiento de su veterinario/a quien deberá comunicarlo a continuación a la autoridad competente en el caso de que sospeche o pueda confirmar que se trata de una zoonosis.

4. Todos los animales con enfermedad susceptible de contagio para las personas y/o para los animales, diagnosticada por un veterinario/a y que a su juicio, tengan que ser sacrificados, lo serán por un sistema eutanásico, autorizado, con cargo al/a la propietario/a.

*Artículo 5. Identificación de animales.*

1. Los propietarios o poseedores de perros están obligados a tenerlos identificados y censados en el Ayuntamiento en el plazo de un mes desde el nacimiento o la adquisición, siempre que se hallen de manera permanente o por periodo superior a tres meses en el municipio. Esta obligación podrá hacerse extensiva a otros animales de compañía.

2. La identificación se efectuará mediante la implantación, en la parte lateral izquierda del cuello del perro de un microchip o elemento microelectrónico que será efectuada por veterinario oficial, foral o municipal, o por veterinario privado habilitado para pequeños animales.

Dicha implantación se hará conforme a lo dispuesto en la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como a lo que se disponga en cualesquiera otras normas que se puedan establecer.

En el momento de la identificación del animal el veterinario oficial o habilitado actuante rellenará la Cartilla Oficial y un documento de identificación y solicitud de inscripción en el Registro General de Identificación Animal de la Comunidad Autónoma del País Vasco (REGIA), creado en virtud de la Orden de 5 de mayo de 1993. El documento estará a disposición de los interesados en los despachos de los veterinarios oficiales o habilitados. Un ejemplar quedará en poder del veterinario actuante, entregando los otros dos al propietario del animal que deberá remitir uno de ellos al Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, junto con la copia del DNI, para proceder a la inscripción de los datos en el REGIA.

3. La falta de identificación censal, o la no realización de la misma en el plazo previsto, constituirá infracción a tenor de lo dispuesto en el artículo 27.1.a de la Ley de Protección de Animales.

4. El propietario del animal deberá comunicar al REGIA cualquier variación de los datos contenidos en el citado registro y en concreto los siguientes:

a) Modificación de los datos relativos al titular y/o animal.

c) Animaliari baja ematea, hil egin delako edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eraman delako behin betiko.

d) Animalia galdu egin delako edo lapurtu egin dutelako.

10 eguneko epean eman beharko da horren berri, baina animalia galdu edo norbaitek lapurtu egin badu, orduan, 48 ordukoa izango da epea, galtze edo salaketa-egunetik kontatzen hasita, eta salaketaren kopia bat erakutsi beharko da.

Aldaketa eskatzeko edo gertakaria jasotzeko, udalean edo foru aldundian, edo gaitutako albaitarien bulegoetan, eskuragarri egongo den agiria erabiliko da, eta agiri horri NANaren fotokopia bat gehitu beharko zaio. a), c) eta d) puntuetan aurreikusitako kasuetan, interesatuak AIEOra dagokion alea bidali beharko du.

b) idatz-zatian aurreikusitako kasuetan, hau da, salmenta, dohaintza edo indarrean dagoen legerian ezarritako beste moduren bat erabilita eskualdatze bat egiten denean, parte hartzen duten aldeek aldaketa eskatzeko agiria bete beharko dute, agiri horrek zenbaki bat eramango duelarik, eta lau ale bete beharko direlarik. Udal Osasun Zerbitzuak edo aldundiak Kartilla Ofizialean jaso eta ikus-onetsiko du eskualdatze hori, eta erabilitako agiriaren zenbakia ere adieraziko du bertan. Ale bat parte hartu duen erakunde edo albaitariaren eskuetan geratuko da, beste ale bat animalia eskualdatu duenaren eskuetan, eta beste bi aleak, berriz, jabe berriak jasoko ditu. Jabe berri horrek AIEOra bidali beharko du ale bat, eskualdatzea egiten den egunetik kontatzen hasita hilabete baino lehen.

Animalia saldu edo eman ahal izateko betebeharra izango da jabe berriari behar bezala identifikatuta eta erroldatuta dagoen eta Kartilla Ofiziala eguneratuta duen animalia entregatzea.

Artikulu honetan adierazi diren erroldatzeari buruzko aldaketak Erregistroari ez jakinaraztea arau-haustea izango da, animaliak babesteko Legearen 27.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

*6. artikulua. Edukitzeko baldintzak.*

1. Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animaliaren edukitzailea izango da animaliak sortu ditzan kalte, galera eta arazoen erantzulea.

2. Animaliaren edukitzaileak beharrezko neurriak hartu beharko ditu haren gorozkiak bide eta espazio publikoetan geratu ez daitezen.

Idatz-zati honetan ezarritakoa betetzen ez dena arau-hauste arintzat joko da hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, 34-4-c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori guztia, aipatutako legeak baimendutako neurri osagarriak erabakitzeko aukeraren kaltetan izan gabe.

3. Erroldatua edota erregistratua egon behar duen animaliaren edukitzaileak berak, edo berorrek baimendutako norbaitek salatu behar du, hala balitz, animalia galdu izana.

*7. artikulua. Edukitzeko mugak.*

1. Izaera orokorrarekin, baimenduta dago etxe-abereak edo etxekotutakoak ohiko bizilekuan edukitzea.

2. Eskumendun udal agintaritzak mugak jarri ahal izango dizkio animaliak edukitzeko baimenari edota eduki ahal den animalia-kopuru maximoari, animalion bizitokiaren ezaugarriak, instalazioen egokitasuna, eta higiene eta osasun baldintzak kontuan hartuta, eta auzokoentzat edo beste edozeinentzat, edo animaliarentzat berarentzat edo beste batzuentzat, egoera arriskutsu edo eragozpenen bat eragin dezaketen kasuetan.

b) Cambios de titularidad.

c) Baja del animal motivada por fallecimiento o por traslado definitivo fuera de la CAPV.

d) Desaparición por pérdida o robo.

La comunicación deberá realizarse en el plazo de 10 días, salvo en el caso de pérdida o robo que deberá efectuarse en el plazo de 48 horas desde el extravío o denuncia aportando una copia de la denuncia.

La solicitud de modificación o incidencia, a la que se adjuntará copia del DNI, se realizará mediante un documento que estará a disposición de los interesados en el Ayuntamiento y en la Diputación Foral, así como en los despachos de los veterinarios habilitados. En los casos previstos en los puntos a), c) y d), el interesado remitirá el ejemplar oportuno al REGIA.

Para los casos previstos en el apartado b), es decir, cuando se produzca una transmisión, por venta, donación o cualquier otra forma prevista en la legislación vigente las partes actuantes deberán rellenar el documento de solicitud de modificación, numerado y por cuadriplicado ejemplar. La anotación y visado de la transmisión en la Cartilla Oficial deberá realizarla el Servicio de Sanidad Municipal o la Diputación, debiendo anotar en la misma el número de documento utilizado. Un documento quedará en poder de la instancia actuante, otra en poder del transmisor, y dos en poder del nuevo propietario que será el obligado a remitir al REGIA un ejemplar en el plazo de un mes desde la fecha de transmisión.

Cualquier venta o cesión conllevará la obligación de entregar al nuevo propietario los animales debidamente identificados, censados y con la Cartilla Oficial actualizada.

La falta de comunicación al Registro de las variaciones en la identificación censal contenidas en este artículo, constituirá infracción conforme al artículo 27.1 a) de la Ley de Protección de Animales.

*Artículo 6. Condiciones de la Tenencia.*

1. El poseedor de un animal será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 1.905 del código civil.

2. El poseedor de un animal deberá adoptar las medidas necesarias para impedir que queden depositados los excrementos en las vías y espacios públicos.

El incumplimiento de lo establecido en este apartado será considerado infracción leve de acuerdo con lo establecido en el artículo 34-4-c) de la ley 10/1998, de 21 de abril, sobre residuos. Todo ello sin perjuicio de la posible adopción de medidas complementarias que autoriza dicha ley.

3. El poseedor de un animal sujeto a censo y/o registro, o persona por él autorizada, deberá denunciar, en su caso, su pérdida o extravío.

*Artículo 7. Limitaciones a la Tenencia.*

1. Con carácter general se autoriza la tenencia de animales domésticos y domesticados en los domicilios particulares.

2. La autoridad municipal competente podrá limitar la tenencia y/o el número de animales máximo atendiendo a las circunstancias de alojamiento, la adecuación de las instalaciones, las condiciones higiénico-sanitarias, así como por la no existencia de situación alguna de peligro o de incomodidad, objetivas, para los/as vecinos/as o para otras personas en general, o para el propio animal u otros animales.

Udal agintaritzak animaliak edukitzeari buruzko gorabeheren informazioa eta dokumentazioa, edo animalia bera erakusteko eskatu ahal dizkio interesatuari. Eskari hori ez betetzea arau-hauste larritzat joko da ordenantza honetako 45. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

*8. artikulua. Abandonatutako animaliak.*

Abandonatutako animaliatzat hartuko da jatorriaren eta jabearen inolako identifikaziorik gabe egoteaz gain bakar-bakarrik dabilena, edo identifikazioa aldean eraman arren jabeak edo baimendutako pertsonak animalia galdu izana salatu ez duena.

*9. artikulua. Nola jardun animalia abandonatuen kasuan.*

1. Administrazioak bilduko ditu abandonatutako animaliak, horretarako zerbitzu propioaren edo itundutakoren baten bidez. Animalia atzeman eta garraiatzeko erabilitako baliabideen higiene eta osasun baldintzek egokiak izan beharko dute eta ez diote animaliari bidegabeko sufrimendurik eragingo.

2. Aurreko puntuan aipatutako animalia horiek animaliak biltzeko zentroan egongo dira legeak ezarritako epean. Jabeak animalia berreskuratu nahi izango balu, jabea dela egiaztatzeaz gain, animaliaren mantenua eta egonaldiagatiko gastuak ordaindu beharko ditu.

Animaliaren osasun egoerak, arriskugarritasunak edo sufrimenduak hala eskatzen duten kasuetan, aipatutako zerbitzuko albaitariaren iritzia kontuan izanda, epea behar beste laburtu ahal izango da.

3. Epe hori agortu ondoren, identifikatu gabeko animalia inork berreskuratu ez badu, honako neurriren bat hartu ahal izango da: Animaliaz jabetu, hala eskatu eta, Ordenantza honetako I. eranskinean jasotako moduan, animaliaren osasun egoera administratiboa erregula dezanari utzi edo, azken aukeran, sakrifizio eutanasikoa gauzatu.

Edozein unetan, konpainiako animalien zaintza beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen esku utzi ahal izango da behin-behingoz.

4. Animalia identifikatuta badago, jabeari jakinaraziko zaio, froga eta guzti, animalia jaso edota hartu egin dela, eta jabeak zazpi egun baliodun izango ditu animalia berreskuratzeko, animalia zentro horretan edukitzeak eragin dituen gastuak ordaindu ondoren. Epe hori igaro eta jabeak animalia berreskuratu ez badu, aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa egingo zaio txakurrari.

5. Animalia hiltzeko, kontzientzia berehala galaraziko dion prozeduraren bat erabiliko da, inolako sufrimendurik eragiten ez duena, albaitari baten kontrol eta erantzukizunpean.

*10. artikulua. Kaleko animaliak.*

1. Animaliek gizakioi eta ondasunei eragin liezazkiguketen eragozpenak edota arriskuak ekiditeko, hiritarrek udal osasun zerbitzuei jakinaraziko diete kaleko animalien edo abandonatutako animalien presentzia.

2. Debekatuta dago bide publikoan eta orubeetan hegazti, txakur, katu eta kaleko beste edozein animaliari janaria ematea «hartarako berariazko baimen gabe».

Idatz-zati honetan jasotakoa ez betetzea arau-hauste arina izango da hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko 34.4.C9 artikuluan esandakoari jarraituz, Legeak baimendutako neurri osagarriak ezartzearen kalterik gabe.

La autoridad municipal podrá requerir al interesado para que facilite la información y documentación relativa a las circunstancias de la tenencia de los animales o la puesta a disposición del animal su incumplimiento será constitutivo de infracción graves a tenor de lo establecido en el articulo 45 de la presente ordenanza.

*Artículo 8. Animales abandonados.*

Se considera animal abandonado aquel que no lleve ninguna identificación del origen y del/de la propietario/a, ni vaya acompañado de persona alguna, así como aquel que, portando su identificación, no haya sido denunciado su extravío por su propietario/a o persona autorizada.

*Artículo 9. Procedimiento ante animales abandonados.*

1. Los animales abandonados, serán recogidos por la Administración mediante el Servicio propio o concertado. Los medios usados en la captura y transporte tendrán las condiciones higiénico-sanitarias adecuadas, y no producirán sufrimientos injustificados a los animales.

2. Los animales referidos en el punto precedente permanecerán en el Centro de Recogida de animales en el tiempo legalmente establecido. Si el/la propietario/a, desea recuperarlo deberá acreditar tal condición, así como abonar los gastos de mantenimiento y estancia del animal.

Cuando las circunstancias sanitarias, de peligrosidad o de sufrimiento del animal lo aconsejaran, a criterio del veterinario/a del referido servicio, el plazo citado se reducirá lo necesario.

3. Transcurrido dicho periodo sin que fuera reclamado el animal no identificado podrá ser objeto de las siguientes medidas, esto es, de apropiación, de cesión a particular que lo solicite y que regularice la situación administrativa sanitaria del animal, en la forma establecida en el Anexo I de la presente Ordenanza y en última instancia, de sacrificio eutanásico.

En cualquier momento, la custodia de los animales de compañía podrá ser delegada provisionalmente en otras personas físicas o jurídicas.

4. Si el animal llevara identificación, se notificará fehacientemente su recogida y/o retención al/a la propietario/a a quien dispondrá de un plazo de siete días hábiles para su recuperación quedando obligado al abono de los gastos que haya originado su estancia en el centro de acogida. Transcurrido dicho plazo sin que el/la propietario/a lo hubiere recuperado se dará al animal el destino previsto en el apartado anterior.

5. El sacrificio de animales se practicará por procedimientos, que impliquen la pérdida de consciencia inmediata y que no implique sufrimiento, bajo el control y la responsabilidad de un/a veterinario/a.

*Artículo 10. Animales Vagabundos.*

1. Con el fin de evitar las molestias y/o riesgos que los animales pueden ocasionar a personas y bienes los/as ciudadanos/as comunicarán a los servicios sanitarios municipales la presencia de animales vagabundos o abandonados,

2. Queda prohibido facilitar alimento en la vía pública y solares a aves, perros, gatos, y demás animales vagabundos. «salvo autorización expresa».

El incumplimiento de este apartado será considerado leve de conformidad a lo establecido en el artículo 34.4.c de la Ley 10/1998 de 21 de abril sobre residuos, sin perjuicio de aplicarse otras medidas complementarias. Permitidas por la ley.

3. Hiri-habitateko edo kontrol gabeko animalia-espezieen ugalketak hala justifika dezakeenean, udal agintariek beharrezko neurriak hartuko dituzte animalia horien populazioa kontrolatzeko.

*11. artikulua. Hildako animaliak jasotzea.*

Udala, bere baliabideen arabera, Mendikoi eta Foru Aldundiarekin, Osasun Sailarekin eta garbiketa enpresekin koordinatuta, animalien hilotzak jasotzen saiatuko da, ze animali mota den eta udal mugapean non azaldu en kontutan hartuta dagokion erakundeari igortzeko.

*12. artikulua. Nola jardun animaliak eraso egin badu.*

1. Animalia batek norbait eraso izanaren salaketa jaso edo horren berri daukan udal zerbitzuak erasoa egin duen animaliaren edota haren jabea identifikatzen lagunduko duen datu oro bilduko du salatzailearengandik edo gertakarien jakinarazpena egin duenarengandik, eta berehala jarriko ditu datu horiek administrazio-espedienteaz arduratuko den agintaritzaren eskuetan, alegia, txakurra erroldatuta dagoen eta, halakorik ezean, jabea bizi den udalerriko udalaren eskuetan, eta dokumentazio guztia udal horretara eramango da.

2. Erasotzerakoan hozka egin badu eta horrek lesioren bat sortu badu, erakunde eskudunak espedientea ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta foru aldundietako abere osasuneko zerbitzuei.

Lesioak eragin dituen animaliaren jabeak 24 ordu izango ditu animalia berak aukeratutako albaitari ofizial edo gaitu batengana eramateko; animaliak, txakurra bada, behaketan egon beharko du hamalau egunez, baina egun-kopuru hori aldatu egin ahal izango da beste animalia batzuen kasuan edo unean uneko baldintza epizootiologikoek hala gomendatzen badute, betiere, txosten tekniko batek hartarako arrazoiak ematen baditu. Hozka egin eta 24 orduen epe hori igaro, eta jabeak txakurra albaitariarengana borondatez eraman ez badu, eskumena duen udal agintaritzak eraman dezan eskatuko dio, eta animaliak jasotzen dituen zentro batean sartzeko edota isolatzeko agindu ahal izango du (II. Eranskina). Errekerimendu hau ez betetzea arau-hauste larria izango da ekainaren 26ko 8/1997 Legeko -Euskadiko Antolamendu Sanitarioa- 36.2.b.1 artikuluan jasotakoari jarraituz, eta han esandakoa bermatzeko kautelazko neurriak hartzearen kaltetan izan gabe. Dena den, egindako txostenaren edo egiaztagiriaren kostua animaliaren jabeak edota edukitzaileak ordaindu beharko du. Animaliak jabe edo edukitzaile jakinik izango ez balu, gertakarien berri jaso duen udal zerbitzua arduratuko da animalia jaso eta behaketan jartzeaz. Behaketaren berri eman beharko dio espedientea tramitatzeko eskumendun udalari gertaerak izan eta 72 orduko epea baino lehen.

Albaitariak behaketa egingo du zoonosia izateko arriskua dagoen ala ez ikusteko eta animaliaren izaera arriskutsua izan daitekeen ala ez ebaluatzeko eta, III. eranskinean dagoen ereduari jarraituz, emaitzari buruzko egiaztagiria/txostena bidali beharko du. Jabeak edota edukitzaileak, behin animaliari behaketa egin zaionean, 48 ordu izango ditu albaitariaren egiaztagiria/txostena bidaltzeko espedientea izapidetzen ari den udalari –lehen paragrafoan adierazitakoari–, udal horrek espedientean sar dezan. Udalak, dagokion foru aldundiko Abeltzaintza Zerbitzura eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Zerbitzura bidali beharko du kopia bat. Behaketa hori egin ondoren arrisku sanitarioa dagoela ikusten bada, horretan diharduen administrazioak txakurra zentro batean sartzeko edota isolatzeko edo, egoera horretan egonez gero, berdin jarraitzeko agindua eman dezake.

3. Cuando la proliferación de especies animales de hábitat urbano e incontrolado, lo justifique, se adoptarán por las autoridades municipales las acciones necesarias que tiendan al control de su población.

*Artículo 11. Recogida de animales muertos.*

El Ayuntamiento con los medios que disponga y en coordinación con Mendikoi, Diputación Foral y Osakidetza, se esforzará en recoger los animales muertos, teniendo en cuenta y tratando, para su posterior traslado al organismo competente, de identificar el tipo de animal que es y limite o lugar donde ha sido encontrado.

*Artículo 12. Procedimiento ante una agresión.*

1. El Servicio Municipal ante quien se denuncie o se ponga en conocimiento la agresión causada por un animal, recabará del denunciante o de quien comunica los hechos, cualquier dato que procure la identificación del propietario y/o poseedor y del animal causante de la agresión, poniéndolo inmediatamente en conocimiento de la autoridad encargada de la tramitación del expediente administrativo, que será el Ayuntamiento donde esté censado el animal o en su defecto donde resida el propietario, trasladándose toda la documentación.

2. En el caso de que la agresión lleve aparejada lesiones causadas por mordedura la autoridad competente en la tramitación comunicará a la Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad y a los Servicios de Sanidad Animal de las Diputaciones Forales la apertura del expediente.

El Propietario y/o poseedor del animal causante de las lesiones, en el plazo de 24 horas, deberá someterlo a observación por parte del veterinario oficial o habilitado de su elección durante catorce días, en el caso de perros, o por un periodo de tiempo distinto según el animal de que se trate o cuando las circunstancias epizootiológicas de cada momento así lo aconsejen y previo informe técnico motivado. Si transcurridas 24 horas desde la mordedura, no lo hubiese hecho de manera voluntaria, la autoridad municipal competente, le requerirá para hacerlo, pudiendo ordenar el internamiento y/o aislamiento del animal en un centro de recogida de animales (Anexo II). El incumplimiento de este requerimiento será considerado infracción grave de acuerdo al artículo 36.2.b.1 de la Ley 8/1997 de 26 de junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi y sin perjuicio de la adopción de las medidas cautelares necesarias para garantizar su cumplimiento. En todo caso, el coste del informe o certificado emitido, si lo hubiere, corresponderá al propietario y/o poseedor del animal. En el caso de que el animal no tuviera propietario o poseedor conocido, el Servicio Municipal conocedor de los hechos será el encargado de su recogida y puesta en observación. Esta puesta en observación deberá comunicarla al Ayuntamiento competente en la tramitación del expediente dentro del plazo de 72 horas de ocurridos los hechos.

El veterinario deberá realizar la observación para descartar o detectar riesgos de zoonosis y para evaluar el potencial riesgo del carácter del animal, emitiendo el correspondiente certificado / informe del resultado de la misma conforme al modelo del anexo III. El propietario y/o poseedor, terminada la observación, deberá remitir en el plazo de 48 horas el certificado / informe veterinario a la autoridad competente en la tramitación del expediente, señalada en el párrafo primero, para su incorporación al mismo, quien a su vez remitirá una copia del certificado / informe veterinario al Servicio de Ganadería de la Diputación Foral correspondiente y a Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad. Si del resultado de la observación practicada se infiriesen circunstancias de riesgo sanitario, la Autoridad municipal podrá ordenar la prórroga o establecimiento del internamiento y/o aislamiento del perro.

3. Erasotzerakoan hozkadarik egin ez bada, jabeak edo edukitzaileak berak nahi duen albaitari ofizial edo gaitu batengana eraman beharko du txakurra; albaitariak animaliaren izaera arriskutsua den ala ez ebaluatuko du nahi duen denboran, eta egiaztagiri bat emango du. Jabeak espedientea izapidetuko duenari bidali beharko dio egiaztagiri hori.

*13. artikulua. Debekuak.*

1. Erabat debekatuta dago:

a) Animaliei tratu txarra ematea, edo arrazoirik gabe sufrimendua, mina edo larritasuna eragin liezaieketen edozein jarduerapean jartzea.

b) Abandonatzea.

c) Era berean, debekatuta dago Ordenantza honetan kontuan izandako edozein animalia-espezietako gorpuak bide publikoan abandonatzea eta, halakoren bat ikusiz gero, gorpuaren berri eman beharko zaio dagokion udal zerbitzuari egoera horietarako bidezkoa dena erabaki dezan.

d) Bizirik irauteko beharrezko elikadura ez ematea edota higiene eta osasun ikuspuntutik desegokiak diren establezimenduetan edukitzea.

e) Animaliak mutilatzea, exijentzia funtzionalengatik edo arrazaren ezaugarriak mantentzearren beharrezkoa den kasuetan albaitariaren kontrolpean egindakoak salbu.

f) Drogak edo botikak ematea, edo animaliarengan kalte fisiko edo psikikoak eragin liezazkiokeen manipulazio artifizialak gauzatzea, lehiaketa baterako errendimendua handitzeko izan arren ere.

g) Euren izaerarako berezkoak ez diren jarduera edo jokabide desegokietara, edo tratu laidogarrietara behartzea.

h) Animalien arteko borrokak eratzea.

i) Animaliak bide publikoan hiltzea, behar gorri edo ezinbesteko kasuetan izan ezik.

j) 14 urte baino gazteagoei edo pertsona ezgaiei animaliak saldu, dohaintzan eman edo uztea haien guraso-agintea edo tutoretza dutenen baimenik gabe.

k) Animaliak kalez kale saltzea edo bide publikoan lagatzea, azoka edo merkatu baimenduetan izan ezik.

l) Animaliak administrazioaren kontrolpetik kanpoko laborategi edo klinikei saltzea.

m) Animaliak publizitaterako apeu, sari edo eskupeko gisa dohaintzan uztea, haien kostu bidezko transakziotik eratorritako negozio juridikoetan salbu.

n) Espezie babestuetako animaliak saltzea, eta dagokien berariazko legeriaren arabera eduki eta erakustea.

2. Era berean, berariaz debekatuta dago:

a) Fabrikazio, salmenta, biltegiratze, garraio eta elikagaien manipulaziorako erabiltzen diren lokal edo ibilgailuetan animaliak sartzea eta bertan edukitzea, osasun agintaritzak hartarako baimena eman ezik.

b) Ikuskizun publikoak dauden lokal, esparru eta espazioetan animaliak sartzea eta bertan edukitzea, baita igerileku publiko, lokal sanitario eta antzekoetan ere. Ezin izango dira sartu edo eduki hondartzetan eta jendetzak dauden heziketa, kultur edo aisialdirako establezimenduetan ere, baldin eta euron arau espezifikoek debekatzen badute.

3. Si la agresión no lleva aparejada lesiones causadas por mordedura el propietario o poseedor del perro deberá someterlo a observación por parte del veterinario oficial o habilitado de su elección, para evaluar el potencial riesgo del carácter del animal, durante el tiempo que éste estime necesario, emitiendo el oportuno certificado que será remitido por el propietario a la autoridad competente para la tramitación del expediente.

*Artículo 13. Prohibiciones.*

1. Queda expresamente prohibido:

a) Maltratar a los animales o someterlos a cualquier práctica que les pueda producir sufrimientos o daños y angustia injustificados

b) Abandonarlos.

c) Asimismo se prohíbe el abandono de cadáveres de cualquier especie animal, incluida en esta Ordenanza en la vía pública, debiendo comunicar su presencia al Servicio Municipal correspondiente para que provea aquello que corresponda a tal situación.

